



# zainketen kate globala

## Zer dira zainketen kate globalak?

Migrazioei lotutako gertaera da, globalizazioa eta ongizate-estatuaren aldaketa ezaugarri nagusizat dituan gaur egungo testuinguruaren barruan. Prozesu migratzaileek emakumezkoren arpegia hartu izanagaz eta lanaren banaketa sexualagaz zerikusia dau. Zainketa-lanak etxe batzuetatik besteetara lekualdatzean datza. Holan, esate baterako, espainiar familiek etxeko eta zainketa lanak herrialde txirotuetatik etorritako emakume atzerritarrei transferitzen deutesiez, etxeko langile lez kontratatuz, askotan baldintza eskasetan, umeak edo nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Era berean, euren familiei eusteko aukera ekonomikoen bila emigratu izan dabene emakume honeek, beste emakume batzuen esku – gehienetan senideen eskuizten dabez euren etxeko erantzukizunak. Prozesu honek ugaltze- eta zaintza-lanaren banaketa barrira eragiten dihardu herrialde aberastuetako etxeetatik herrialde txirotuetako etxeetarantz, azken honeetako emakumezkoren gain danok konpartitu beharko geunkezan erantzukizunen gainkarga utziz.

Ondorengo kontakizunak lagunduko deusku prozesu honen gorabeherak hobeto ulertzen.

## Kateatuak

*Kristinak apenas dauan astirik sandwich bat arrapaladan jateko, arratsaldeko etxean sartu aurretik. Moka-dua dantzan izaten dau han Uxueren soinekoa lisatzen ari dala, Alejandraren arropa dagoeneko neurri berekoa izango dala pentsatzen dauanean. Gau horretan mintzalekura joan behar dauala be gogoratzen du, hontza jausi jakon ala ez jakin beharra daualako. Nahiago leuke amatxok izekori deituko ez baleutso, baina gitxienez oraindik telefonoan jarten da.*

*Lora more eta berdeen estanpatua, Uxueren soinekoa.*

*Badaki Uxuek amaxu ez jakola bila joango eskolatik ateraten danean, egitasmo baterako onena dala erakusteko batzar oso garrantzitsua daualako. Azterketa balitz lez, esan deutso. Beraz, Uxuek Carlotaren etxean merienda-tuko dau beste behin be, honen amak ez daualako holako batzar garrantzitsurik, eta nahiz eta triste samar egon, poztu be egiten da, erizain lez mozorrotu eta panpinak ilarran ipiniko dabezalako arratsalde osoan eguzkia hartu daien, zuriz jantzitako emakumeek egiten dabene lez leihotik ikusten dabene nagusien parkean.*

*Baketsua, arbolatsua eta zabala, nagusien parke hori!*

*Baketsua, arbolatsua eta zabala, nagusien parke hori!*

*Astean bitan ateraten dau Susanak parke horretara bere ama, egoitzako usain garratzetik libratu guran, amaren aulkia eta sarriago ez etortearen hobena arrastaka eroanez, arindu zalako egoitzan sartu izanarena. Nahikoa izan zan gizonaren begirada etxera erroteko ideia uxatzeko. Azkene batean, hauxe a onena, esaten deutso bere buruari, ezin naz berataz arduratu. Baina gaurkoa, arratsalde atsegingarria da eta hego-*



haize gozoak udazkena atzeratu egiten dau eta alkarri irribarre egiteko eta alkar laztantzeko aukerea emoten deutse, horixe da-ata Marisolek ulertzen dauan hizkuntza bakarra.

Bere dementzian bakartuta, nahasita, negartsu edo umore txarreko, Marisol.

Bost erditze eta abortu bat bizi izan ebazana; abortua izan zalarik mingarriena, lehenengoa izateagaitik. Eta gauza ez banaz. Eta baztertzen banau. Baina gauza izan zan eta etxea umez bete zan, eta eguna egitekoz, gizonaren presentzia isil eta tristeak baztertzearen antza baeban be. Baina ez egoan kexuetarako astirik, dana ordenatuta, umeak bainatuta, afaria zortziak eta erdietarako prestatuta... euki gura baeban. Umeak arpegi nahasiak dira gaur, euren izen maiteak ahaztu egiten dira. Non dagoz umeak. Noizbehinka oihuka esaten dau, orain lez, gaua etorri dalako eta Susanak joan beharra daualako; eta geratzeko eskatzen deutso, bildur dalako, bere izena be ahaztu egingo daualakoan.

Bildur itogarria, bakartia, estugarria.

Karmeni loa hartzea galarazoten deusana; leher eginda oheratzen da biharamuneko bazkaria prest itzi ondoren eta, halanda be, ordu biak, hirurak, laurak... entzuten ditu sarrailan sartzen dan giltzaren zaratak bere giharrak laxatu eta lo geratzen dan arte, akituta, arinduta etxera heldu dalako, zein egoeratan axola barik. Eta bihar ez dau izango indarrrik ostegunez ezin dala urten esateko, ez ditualako oihu eta ate-kolpeak jasaten. Beraz, bizikidetza koloka dago beti; ez daki noiz bihurtu zan bere neskatoa hain zakar, ez daki non dagozan kili-kili eta isil-mandatuak, zer egin dauan txarto, zergaitik joan zan senarra... Eta galderarik ez egiten saiatzen da teoriarik zortzi diran baina, azkenean, hamarrera be luzatuko diran bulegoko orduei ia lorik egin barik aurre egin behar deusenean. Eta aurrera egiten dau, lisatzeko arropen saskiari begiratu barik, Kristinaren falta izugarri sentituz; izan be, soldata bakarragaz, luxua zan ha etxean eukitea.

Cristina, eraginkorra, diskretua, langilea.

Dana dala, zortea izan ebana, laster aurkitu ebalako bete etxe bat goizetarako, nahiz eta gaur kristalak garbitu beharra tokatu eta besoak minduta izan, eta oraindik erosketak egin eta gizonarentzat zeozer jateko prestatuta itzi behar. Gizagaixoa, batzuetan logelari aurkitzen dau emaztearen argazkiari begiratzen. Arin joan zan, eta bera gazteei geratu zan bakarrik hori onartzeko eta zaharregi bere burua zaintzen ikasteko. Beraz, Kristinak eusten deutso etxeari, eta zorionekoa da, kontratua daualako eta paga estra eta oporrak izateko eskubidea. Ia astirik ez badau be, sandwich bat arrapaladan jateko, arratsaldeko etxean sartu aurretik.

‘Cristianisme y Justicia’ dalakotik urte amaierako hausnarketan proposatu euskuen lez, “giza hartu-emon zuzenago eta bardinagoak eratzeko, zeharkatzen gaituen desbardintasunak ezagutzera emon beharra dago. [...] Sekula ez dalako benetako gizarte zuzentasunik izango, bidean gure ingurukoak zaintzeari uko egiten badeutsagu... edo zainketa horreen adurea bakarrik emakumeen gain izten badogu”.

Hona hemen galdera batzuk **hausnarketa eragiteko**:

“Kateatuak” kontakizunari buruz:

- Zein zaintzen dau emakume bakotzak?
- Zeinek zaintzen dau emakumea?
- Zelan sentitzen da?
- Ezagutzen dogu gure inguruan antzeko esperientziarik?

Zainketen kate globalari buruz:

- Zelan antolatzen gara gure bizitza pertsonal eta familia bizitzan, gure inguruko zainketa-beharrei aurre egiteko? Banaketa zuzena da?
- Egiteko honeetarako jentea kontratatzen badogu: ze baldintzatan egiten dabe euren lana? Ezagutzen dogu euren errealidade familiar eta pertsonala?
- Zein ikuspuntutatik hartzen dogu persona nagusien zainketa?
- Gizarte lez, zer egin daikegu guztiok daukaguzan zaintza- beharrianak beteteko eta beste era batera banatzeko?

**Gehiago jakiteko:**

- CJ dalakoaren urte amaierako hausnarketa. *Transformemos el mundo desde el afecto y la ternura*. <https://www.cristianismeijusticia.net/es/%E2%80%9Ctransformemos-el-mundo-desde-el-afecto-y-la-ternura%E2%80%9D>
- Zainketen kate globalak. [http://muevete-porlaigualdad.org/publicaciones/cadenasglobalesdecuidado\\_ozco.pdf](http://muevete-porlaigualdad.org/publicaciones/cadenasglobalesdecuidado_ozco.pdf)